

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Markos Kortabarria Lete

*Bergara,
Gipuzkoa
(1917-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Bidekurutzeta kalean jaio zen. Aita Basalgo auzoko Gallaztegi baserrikoa zen, eta ama auzo bereko Ziardegikoa. San Pedro plazako eskolan hasi zen, eta gero Udalak ehungintza lantegien laguntzarekin ireki berri zuen Elementala lanbide-eskolan jarraitu zuen, mekaniko ikasketak egiten. Eibarko Star lantegian goizez eta eskola Elementalean bertan arratsaldean egin zuen lan aldi batez. Gero "Textiles Pedro Otazua"n ekin zion eta erretiroa hartu zuen arte jardun zuen bertan lanean. Ehungintzan luzez jarduna bera, Markosek ehuna nola egiten zen azaltzen du. Zeanurin konpondu omen zuen berak ikusi duen ehungintza makinarik zaharrena. Lanetik kanpoko orduetan zura tailatzen ikasi zuen, eta armairu eta kutxa ugari egin ditu. Arando tabernako (Batzoki Txikia ere deitua) Mariñe Barrenetxearekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Mariñe emazteak ere hartu zuen parte elkarriketan.

Zintak

BER-293

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-21
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-294

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-21
- **Iraupena:** 21 min

- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Inazio Zabala maisu euskaldunarekin gaztelaniaz

- **Erref:** BER-293/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:05:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sei urte ingururekin hasi zen eskolan. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta, euskaraz eginez gero, egurra jasotzen zuten. Maisua euskalduna zen, Ibarakoa: Inazio Zabala.

2. Mikeleteak Aurrezki Kutxan eta Telefonoan

- **Erref:** BER-293/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Lanbideak » Beste batzuk
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Garai batean Aurrezki Kutxa Aldundiarena zen eta mikeleteak ziren bertako langileak. Aldameneko lokalean Telefonoa. Konferentziak nola izaten ziren. Etxean ez zuten telefonorik, eta abisuren bat eman behar zenean, hangoa erabiltzen zuten.</p>

3. Bergarako pilotalekua; mutikoek pilotarako zaletasuna

- **Erref:** BER-293/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:50. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Herriko frontoiak ehun urtetik gora ditu. Gaur egungoa baino hiru aldiz handiagoa zen garai batean, estali aurretik. Bera mutikoa zela egin zioten teilatua. Mutikoak bazkaldu eta korrika joaten ziren pilotalekuetara, lekua hartzera. Bera elizpera joaten zen. Han, zorua eta hormak koskaz beteta. Abadeek ere pilotan jokatzen zuten.

4. Pilotalekuan launaka-launaka, bakoitzak tanto bat

- **Erref:** BER-293/010
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Igande goizetan kuadrillak egoten ziren pilotalekuan, jokatzeko zain, eta launaka-launaka jokatzeko zuten, bakoitzak tanto bat. Partidak, gainera, luzatu egiten zituzten batzuetan, partida estutzen zenean.</p>

5. Frontoiko "barateroa": Patxi "Ezkerra"

- **Erref:** BER-293/011
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:13:09. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotalekuan "barateroa" egoten zen: Patxi "Ezkerra". Poltsa baten pilotak edukitzen zituen, seboa emanda, eta mutikoei ematen zizkien biguntzeko. Sakea bakarrik egiten zuten, mutikoentzat gogorrak ziren eta. Arratsaldeko partida ofizialerako izaten ziren pilotak. Larunbat eta igandetan pilota partida onak egoten ziren.

6. Oihalgintza lantegiek bultzatuta ipini zuten Elementala

- **Erref:** BER-293/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Elementala lanbide-eskola zen. Primo de Rivera egon zen inaugurazioan. Oihalgintzako lantegiek lagunduta ipini zuten martxan. Oihalgintzako lantegi asko zeuden: "Algodonera San Antonio", "Mobillas, Fernandez y cía", "Lasagabaster"...

7. Elementaleko maisuari laguntzeko, Star lantegian delineatzaile

- **Erref:** BER-293/018
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1937an ez zegoenez lanik, 42 lagun Eskola Elementalean ikasten hasi ziren. Zazpi bakarrik amaitu zuten. Denak lanean hasi ziren, bera izan ezik. Orduan, Elementalak Eibarko Star lantegira bidali zuen egun erdiz delineaizaile gisa eta beste egun erdiz Elementaleko maisuari laguntzen zion. Pistolak diseinatzeko zituen.

8. Gerra hasieran oihalgintzako lantegi guztiak martxan

- **Erref:** BER-293/023
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:27:58. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra sasoian ahal ziren oihal-lantegi guztiak martxan ipini zituzten, armadarako oihalak behar zituzten eta. Hasieran gudarientzako oihalak egin zituzten eta gero nazionalentzat.</p>

9. Militarizatu ahal izateko, lanean bazekiela erakutsi behar

- **Erref:** BER-293/025
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:28:57. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

<p>Oihalgintza lantegietako nagusiek langileak militarizatzea eskatu zuten. Bera 38ko kintoa zen eta beranduago deitu zioten. Hiru hilabete egin zituen soldadu. Hiru azterketa egin behar izan zituen, lanean bazekiela erakusteko, eta azkenean militarizatu egin zuten. Zazpi urtez egon zen. Urtean behin Guardia zibilengana joan behar, ziurtagiriari zigilua jartzera. Militarizatuta ere lehengo soldata bera jasotzen zuen.</p>

10. Tomas Etxeberriarekin ikasi zuen taillatzen

- **Erref:** BER-293/029
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Tomas Etxeberriarekin ikasi zuen taillatzen. Eskola publikoa zen; erremintak Udalarenak ziren. Iluntzean joaten zen, zortziak aldean.

11. Ehuna nola egiten zen; anezka

- **Erref:** BER-293/037
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:48:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ehuna egiteko, hariak Kataluniatik ekartzen ziren, merkeagoa zelako. Eskuz jartzen ziren hariak makinan; hariak nola joaten ziren gurutzatzen azaltzen du. Gurutzatze horren arabera, kalitate ezberdinetako oihalak sortzen ziren. Makinaren inguruko azalpen zehatzak. Anezka. Uztarri batetik pasatu ostean, anezka batetik bestera botatzen da, barruan haria duela. Han hariak gurutzatzen dira eta lotuta geratu.

12. Ehungintzan ezagutu duen makina zaharrenetakoa

- **Erref:** BER-293/040
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Ehungintzan ezagutu duen makinarik zaharrenetakoa Zeanurin ikusi zuen, hura martxan jartzera joan zenean. Berarekin lan egiten zuen neska bati esan zion makina harekin lan egiteko. Orduan ehun zati txikiak egiten ziren; gerora, karrete handiekin, askoz handiagoak. Bergaran arkupeetan eduki zuten makina erakusgai garai bateko Euskal Jai batzuetan.

13. Ehuna egindakoan, tindategira

- **Erref:** BER-293/043
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Ehuna egin ahala biribilkatu egiten zen. Gero makina baten pasatzen zen zer pisu eta zenbat metro zeuzkan neurtzeko eta tela mehea ala lodia zihoan jakiteko. Gero tindategira eramaten zen. Tindategiko prozesua.</p>

14. Militarrentzat kaki koloreko oihalak

- **Erref:** BER-293/047
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:00:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Militarrentzat kaki koloreko arropak egiten zituzten. Tindategian 7-8 ontzitan pasatzen ziren oihalak. Handik lehortegira eramaten ziren. Txukundu ostean, dendetara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com